

ZEIN DA IDEIA?

Mugikorra bateriarik gabe gelditzea oso ohikoa da, eta mugikorra asko erabiltzen duten pertsonak (gaur egungo jende gehienak) arazo larriak izaten dituzte mugikorraren bateriaren iraupenarekin.

Mugikorra bateriarik gabe izateak hainbat desabantaila ekar ditzake. Horrez gain, oso deserosoa da jakitea mugikorra bateriarik gabe gelditzen ari zaizula eta agian bateriarik gabe gelditzen zaren une horretan zerbait garrantzitsua egin beharko zenukeela mugikorrarekin.

Ziur gaude zuetako batek baina gehiagok lanerako mugikorraren beharra izango duela edota egun osoz kanpoan izan behar zaretenean ezinbestekoa iruditzen zaizuela mugikorra kargaturik izatea.

Arazo hau konpontzeko, MON enpresa sortu dugu. Bertan salduko duguna mugikorreko fundak izango dira, baina ez ohituta gauden mugikorreko funda ohikoak, baizik eta eguzki bidez kargatzen diren mugikorreko fundak.

Funda hauek eguzki plakak izango dituzte txertatuta eta hauen bidez, energia lortuko dugu gero mugikorreko bateria bihurtuko dena.

Hau lortzeko, funda hauek mugikorrera konektaturik egongo dira, hau da, funda mugikorrari jartzean, bateria kargatzeko zuloatik entxufe bat sartuko da.

Funda honek botoi txiki bat izango du eskuinaldean eta botoi txiki horri ematean, mugikorra kargatzen hasiko da eta eguzki energia guzti hori, mugikorreko baterian eraldatuko da. Botoia berriz sakatuz gero, eguzki izpiek sortutako bateria hori ez da kontsumituko, hau da, mugikorra ez da kargatuko.

Gainera, egunez eguzkia dagoenez baina gauez ez, egunez lortutako energia (kontsumituko ez dena) gorde egingo da, eta eskuineko botoia sakatzean mugikorra kargatzen hasiko da berriz.